

<b>1.</b>	<b>ZUZENBIDE OINARRIAK ETA PROZEDURA FASEAK.....</b>	<b>3</b>
1.1.	ZUZENBIDE OINARRIAK	3
1.2.	PROZEDURA FASEAK	3
<b>2.</b>	<b>IRISMEN DOKUMENTUAREN TXERATATZEA.....</b>	<b>5</b>
2.1.	IRAUNKORTASUN IRIZPIDEAK	5
2.1.1.	INGURUMEN HELBURU ESTRATEGIKOAK.....	5
2.1.2.	INGURUMEN HELBURU ESTRATEGIKOEN TXERTATZEA.....	5
2.2.	BALIABIDE ETA EREMU GARRANTZITSUAK	7
2.2.1.	BALIABIDE ETA EREMUAK. ESKAKIZUNAK.....	7
2.2.2.	BALIABIDE ETA EREMUAK. ESKAKIZUNAK TXERTATZEA.....	8
2.3.	KOKALEKU ETA JARDUERA PROBLEMATIKO ETA ONARTEZINEN BALORAZIOA	9
2.3.1.	BALORAZIOA.....	9
2.3.2.	BALORAZIOAREN TXERTATZEA.....	10
2.4.	ZORU URBANIZAEZINAREN ORDENAZIOAN GOGOAN HARTU BEHARREKO INGURUMEN ALDERDIAK	10
2.4.1.	INGURUMEN ALDERDIAK.....	10
2.4.2.	INGURUMEN ALDERDIEN TXERTATZEA.....	11
2.5.	HIRI-ZORU ETA ZORU URBANIZAGARRIAREN ORDENAZIOAN GOGOAN HARTU BEHARREKO INGURUMEN ALDERDIAK	11
2.5.1.	INGURUMEN ALDERDIAK.....	12
2.5.2.	INGURUMEN ALDERDIEN TXERTATZEA.....	12
2.6.	INGURUMEN –AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN EDUKIA ETA IRISMENA	14
2.6.1.	EDUKIA ETA IRISMENA.....	14
2.6.2.	EDUKIA ETA IRISMENAREN TXERTATZEA.....	18
2.7.	INGURUMEN EBALUAZIOA ETA IKUSKATZE PROGRAMA EGITEKO AINTZAT HARTU BEHARREKO ADIERAZLE KUANTITATIBO EDOTA KUALITATIBOAK PROPOSATZEA.	19
2.7.1.	ADIERAZLEAK.....	19
2.7.2.	ADIERAZLEEN TXERTATZEA.....	19
<b>3.</b>	<b>HASIERAKO ONESPENAREAKO MOLDAKETARI EGINDAKO SEKTOREKO TXOSTENAK.....</b>	<b>20</b>
3.1.	INSTITUZIOEN SEKTOREKO TXOSTENAK	20
3.2.	TXOSTENEN ESKAKIZUNAK	20
3.3.	TXOSTENEN ESKAKIZUNEN BETETZEA	21



## 1. ZUZENBIDE OINARRIAK ETA PROZEDURA FASEAK

### INGURUMEN ARLOAK H.A.P.O.-N TXERTATZEAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA

#### 1.1. ZUZENBIDE OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren arloko araudia honako hauetan dago jasota: 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; eta 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena.

Alkizako HAPOa idazteko prozeduraren hasieran indarrean zegoen araudia Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea zen, eta, EAEren eremuan, Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra eta Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua.

Indarrean dagoen hirigintza-legerian ezarritako lege-esparruarekin bat etorriz (2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa), udalerrian indarrean dauden hirigintza-zehaztapenak berrikusteko eta Alkizako hirigintza-plangintza orokor berria onartzeko planteatutako helburua lortzeko, aplikatu beharreko egungo lege-esparrura egokitutako HAPO bat egin eta izapidetu behar da. Era berean, lege horren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundia da HAPO onartzeko organo eskuduna (7.000 biztanletik beherako udalerria). Gainera, HAPOk etorkizunean hiri-lurraldearen eta landa-lurraldearen antolamenduari dagokionez ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuak baimentzeko esparrua ezartzen du. Horregatik guztiagatik, HAPOri **Ingurumen-Ebaluazio Estrategiko Arrunta** egin behar zaio.

Aipatutako 21/2013 Legearen arabera, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren izapideak (17. artikulua eta hurrengoak) honela laburbiltzen dira:

- a) Hasteko eskabidea.
- b) Aurretiazko kontsultak eta ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea.
- c) Ingurumen-azterketa estrategikoa egitea.
- d) Jendaurreko informazioa eta kontsultak eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei.
- e) Espedientearen azterketa teknikoa.
- f) Ingurumen-adierazpen estrategikoa.

#### 1.2. PROZEDURA FASEAK

2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 21. eta 22. artikuluetan xedatutakoa betez, eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, informazioa emateko eta kontsulta egiteko erei buruz 12. artikuluan ezarritakoari jarraituz, Alkizako Udalak, HAPO gauzatzeko prozeduran aurreikusitako izapideen barruan, honako jarduerak burutu behar ditu:

- a) Ukitutako herri administrazioei eta pertsona interesdunei kontsulta egingo die, planaren edo programaren atariko bertsioari eta ingurumen azterketa estrategikoari buruz.
- b) Planaren atariko bertsioa eta ingurumen azterketa estrategikoa jendurrean jarriko ditu ikusgai, iragarkia aldizkari ofizialean argitaratuta. Eta gutxienez 45 eguneko epea emango da interesdunek aztertu eta bidezko oharrak egin ditzaten.

Ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 24. eta 25. artikuluetan xedatutakoa betez, eta plan eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, 13. Artikuluan ezarritakoari jarraituz, Alkizako Udalak, plana behin betiko onartu aurretik, Ingurumen Adierazpen Estrategikoa egin dezan eskatuko dio Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiri. Eta eskaera horri, ingurumen ebaluazio estrategikoaren espediente osoa erantsiko dio. Honako agiriak izango ditu:

- HAPOko hirigintza agiriak.

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**C DOKUMENTUA. INGURUMEN ARLOAK H.A.P.O.-N TXERTATZEAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA**

---

- Ingurumen azterketa estrategikoa.
- Espedientean jasota dauden eta kasuan kasuko araudi sektorialaren arabera nahitaezkoak diren txostenen kopia, eta kontsultak egiteko izapidean zehar edo jendaurrean ikusgai egon den bitartean aurkeztutako alegazioak.
- Alkizako Udalak egindako laburpen-agiri bat, honako alderdi hauek azalduz: ingurumen azterketa estrategikoan jasotako ingurumen alderdiak nola txertatu diren Planaren azken proposamenean, azterketa hori nola moldatu den irismen agirira, egindako kontsulten emaitza zein izan den eta kontsulta horien erantzuna zein neurritan hartu den kontuan.

Prestatutako dokumentazioa jaso ondoren, ingurumen-organoak espedientearen azterketa tekniko eta **Ingurumen-Adierazpen Estrategikoa** deiturikoa egingo du (21/2013 Legearen 24. artikulua). Espedientearen azterketa tekniko amaitutakoan, ingurumen-organoak ingurumen-adierazpen estrategikoa egingo du, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratuko du, ingurumen-organoaren egoitza elektronikoan argitaratzeari kalterik egin gabe, eta prozedura amaituko da ( 21/2013 Legearen 25. artikulua). **Epea 3 hilabetekoa** izango da, espediente osoa jasotzen denetik aurrera.

Azkenik, Alkizako Udalak HAPOn sartuko du ingurumen-adierazpen estrategikoaren edukia, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaliko dio, behin betiko onar dezan. Azken horrek Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratuko du adierazpena onartu den ala ez ( 21/2013 Legearen 26. artikulua).

Honen arabera une honetan, behin-behineko onarpenerako prestatu den HAPOn bertsioa eta horrenkin batera doan K Dokumentua, Ingurumeneko Azterketa Estrategikoa, aurkeztu beharko dira, informazio publikoaren fasean herri-administrazioei eskatutako txostenak eta herritarrek egindako alegazioekin batera, Ingurumen organoak (Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiak) ingurumen-adierazpen estrategikoa ,3 hilabeteko epean, idatz dezan.

**INGURUMEN ARLOAK H.A.P.O.-N TXERTATZEAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA**

**2. IRISMEN DOKUMENTUAREN TXERATATZEA**

**2.1. IRAUNKORTASUN IRIZPIDEAK**

**2.1.1. INGURUMEN HELBURU ESTRATEGIKOAK**

Hurrengoak dira HAPO-k kontutan eduki beharreko helburuak arlo honetan:

- 2.1.1.1. Ingurumenarekiko kalteak prebenitzeari lehentasuna ematea, kalte horiek zuzentzeko eta konpentsatzeko neurrien gainetik; eta horretarako, ingurumen alderdiei dagokien garrantzia ematea HAPO egiterakoan.
- 2.1.1.2. HAPO, halaber, udalerriko ingurumena hobetzeko tresna moduan hartzea, eta ez ingurumen inpaktuen sorburu gisa bakarrik. Planari ingurumena hobetzeko proiektuak eta jarduerak eranstea.
- 2.1.1.3. Lurzoruaren erabilerak esleitzerakoan, natur eta nekazaritza baliabideen kalitatea eta urrakortasuna kontuan hartzea, eremu batzuen eta besteen ingurumen kalitatea eta aurreikusitako erabilerak hartzeko duten gaitasuna bezalaxe.
- 2.1.1.4. Lurzoru urbanizagarri berriak sailkatzeko erabakia behar bezala arrazoitzea, nahikotasuna eta egokitasuna adieraziz, eta benetako premiei erantzuteko behar-beharrezkoa den lurzorua bakarrik mugatuz.
- 2.1.1.5. Bigarren bizileku izango diren etxebizitzak edo hutsak ugaritu ez daitezen begiratzea.
- 2.1.1.6. Hiriaren zatiketa edo sakabanaketa ekiditea, erabilera edo jarduera desberdinak behar bezala integratuta eta espazialki kohesionatuta jarrai dezaten ahalbidetuz, mugikortasun premia handirik sor ez dadin.
- 2.1.1.7. Gerta litezkeen hiri garapenak eta azpiegiturak lekutzea, eta honako baldintza hauek ziurtatuko diren moduan antolatzea:
  - Natur baliabide baliotsuen gaineko eraginak minimizatzea.
  - Ur hornidurako sarea eta saneamendu sarea, garapen horien zerbitzu egokia bermatuko den moduan erabiltzeko aukera izatea.
  - Efizientzia energetiko pasiborako baldintza egokiak ezartzea.
- 2.1.1.8. Paisaia faktorea plangintzan txertatzea, Paisaiaren Europako Hitzarmenean ezarritakoari jarraituz babestu, kudeatu eta antolatu dadin sustatuz
- 2.1.1.9. Sorburu berriztagarrietan oinarritutako energia hornitzeko instalazio deszentralizatuak ezartzeko aukera ahalbidetzea.
- 2.1.1.10. Ur baliabideak eta ur ingurunea – lurpeko edo lur gaineko ur kontinentalak– babestu, zaindu eta lehengoratzeko, uraren Esparru Zuzentarauaren helburuak lortzen saiatuta. Ildo horri jarraituz, uren arloan gaur egun indarrean dagoen araudiak ezarritako distantziak eta zortasunak errespetatuko dira, eta era berean, jarduketak saihestu egingo dira akuiferoak kutsatzeko arriskua erakusten duten eremuetan.

**2.1.2. INGURUMEN HELBURU ESTRATEGIKOEN TXERTATZEA**

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**C DOKUMENTUA. INGURUMEN ARLOAK H.A.P.O.-N TXERTATZEAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA**

---

- 2.1.2.1. Puntu honek eskatutakoa betetzea da HAPO honen helburuetako bat, eta Hartutako Erabakien Justifikazio Memorian, B Dokumentuan, Antolamenduaren Irizpide eta Helburuak tituluko 2. Atalean ikus daiteke eta baita ere K dokumentuan, Ingurumen-Azterketa estrategikoan, bere 1.5 atalean.
- 2.1.2.2. HAPO Honek Hirigintza Arau Orokorrak deituriko F dokumentuko 86 artikuluan ingurumena, paisaia eta natura babesteko ordenantzak prestatu eta izapidetu ahal izatea aurreikusten du. Beste alde, dokumentu bereko 12 artikuluan, Landa lurren kalifikazio orokorraren definizioa egiten da eta zona bakoitzaren ezaugarritzea egiten da ere, eraikitze eta erabilera baldintzak ezarriz. Erabilera bereizgarria, erabilera bateragarriak eta erabilera debekatuak zerrendatzen dira. Zona guztietan erabilera bateragarriak erabilera bereizgarriari kalterik eragiten ez dieten baldintzetan bakarrik onartzen dira. Ezarri nahi den edozein erabilera, zona bakoitzak zaindu nahi dituen ingurumen baldintzetarako eragin negatiboa eduki badezake, egitasmoa gauzatu ahal izateko plan berezia eskatzen da, planak, eduki eta prozeduren aldetik, izan behar dituen ingurumenarekiko bermeak baliatu ahal izateko.
- 2.1.2.3. Ingurumen-Azterketa Estategikoa deituriko K dokumentuko 3.2 atalean, landa luraren zonifikazioaren zergatiak azaltzen dira. Egitura-antolamenduaren EA4 planoan marraztu da udalerraren zonifikazio edo kalifikazio orokorra, bat dator irismen dokumentuaren eskakizunarekin.
- 2.1.2.4. Barruti urbanizagarri bakarra aurreikusten du HAPO-k, 6. Sektorea. Honen ingurumenaren gaineko eragina Ingurumen-Azterketa Estategikoa deituriko K dokumentuko 6.3.6 atalean aztertzen da, eta 6.4 kapituluan eraginen mailak adierazten dira. Guztiak inpaktu moderatu edo inpaktu bateragarri kategorietan sartzen dira. K dokumentuko IV eranskina den Nekazaritzaren Sektorearen Gaineko Eraginari Buruzko Txosteneko 4. Kapituluaren neurri zuzentzaileak definitzen dira.
- 2.1.2.5. HAPO-ak 31 etxebizitza berri aurreikusten ditu, horietatik 26 6. Sektorean ordenatzen dira. Sektore honen helburua herriko gazteria herrian finkatzea da, eta horregatik, administrazioak sustatutako etxebizitza tasatu municipalak izango dira guztiak, etxebizitzaren esleipendunak herriko seme-alabak izan beharko direlarik lehentasunez. Ez da bigarren etxebizitza sor dezakeen antolatzea. Zailagoa da beste 5 etxebizitzaren etorkizauna aurreikustea, sustapen pribatukoak izango bait dira.
- 2.1.2.6. HAPO-ren planoetan ikus daitekeenez egungo hiri zoruari gehitzen zaion zabalpen bakarra 6. Sektorekoa da. Herri gunearen jarraipena da eta horren osagarri bezala antolatu da, bideen jarraikortasuna eta irisgarritasuna kontutan edukita.
- 2.1.2.7. Puntu honetako eskaerak betetzen dira HAPO-ren ordenazioan. Lehenengoa 2.1.2.4 puntuan justifikatu dugu. Bigarrena B Dokumentua den Erabakien Justifikazio Memoriako 3.1 ataleko azken bi paragrafoetan justifikatzen dira Hirugarrena B Dokumentuko 9 kapituluaren arrazoitzen da.
- 2.1.2.8. Paisaiari buruz F Dokumentua den Arau Orokorrerako 56 artikulua arautzen du. Dokumentu horren 85 artikulua paisaia babesteko ordenantzak egiteko ahalbidea planteatzen du. Horren gain H Dokumentua diren Eraikuntza eta Urbanizazioko Ordenantzetako 56 artikuluan, urbanizazioak egiteko aldaketa klimatikoaren ikuspuntutik jarraitu beharreko irizpideak definitzen dira, eta horien artean, bere 4. Puntuan, espazioen naturalizatzeari dagozkionak jasotzen dira, paisaiaren gain eragina dutenak. Ingurumen-Azterketa Estategikoa deituriko K dokumentuan badaude paisaiari buruzko hainbat xedapen: 1.5.10, 5.6.1, 5.8, 7.7.1, 7.14.2, 7.15.3 y 7.16.11.
- 2.1.2.9. H Dokumentua den Eraikuntza eta Urbanizazioko Ordenantzetako 15 eta 36 artikuluetan zera esaten da: eraikin berriek energia berriztagarriak sortzeko aukerak aprobetxatuko dituzte; eraikinen estalkietan plaka fotovoltaikoak jartzeko aukera aztertuko da eguzki-energia energia-iturri gisa erabiltzeko, eta eraikinetan beroa sortzeko energia geotermikoa edo aerotermikoa erabiltzea gomendatzen da.
- 2.1.2.10. Arau Orokorrak tituloko F Dokumentuan hainbat xedapen daude uren babeserako: 12 artikuluko D2 atalean Azaleko Uren Babesa kalifikazio orokorra zonen erabilerean eta eraikinen arautzea egiten da. 25 artikuluan gauza bera egiten da Ibai-lbilguak kalifikazio xehatua duten lursailentzako. 38 artikuluan ibilguak babesteko bete beharreko arauak aipatzen dira eta ibilguetatik urrundu beharreko distantziak ere. 46 artikuluan “akuiferoen kalteberatasuna” baldintza jainjarria duten lurretan bete beharreko arauak xedatzen dira. 48 artikuluan “urak har ditzakeen eremuak” baldintza jainjarria duten lurretan bete beharreko arauak xedatzen dira.

## **2.2. BALIABIDE ETA EREMU GARRANTZITSUAK**

### **2.2.1. BALIABIDE ETA EREMUAK. ESKAKIZUNAK**

- 2.2.1.1. Ernio-Gatzume Kontserbazio Bereziko Zona (KBZ), HAPOk araudiak eta xedapenek bateragarriak izan behar dute Hernio-Gatzume Kontserbazio Bereziko Zona (ES2120008) izendatzen duen 219/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, ezarritako kontserbazio eta zonakatze neurriekin. Lurzoru urbanizaezina arautzeko HAPOn ezartzen den araudiak, eremu hori babesten lagundu behar du, eta berori kontserbatzeko ezartzen diren neurriak aplikatzeko bidea erraztu. Hori horrela, KBZaren esparruan aplikatu beharreko baldintzatzaile gainjarri bat aplikatzea gomendatzen dugu; edo bestela, eremua oso-oso Babes Berezia kategorian sartzea. Azkeneko kasu honetan, dena den, kategoria horretan onar daitezkeen erabileren araudia zehaztu egin beharko litzateke, KBZ kontserbatzeko helburuekin bateragarriak diren basozaintza, nekazaritza eta abeltzaintza erabilerak ez eragozteko.
- 2.2.1.2. Baso erdinaturalak. HAPOn zaindu egin behar dira hobekien kontserbatuak dauden pagadi, harizti eta baso mistoak, Babes berezia kategorian sartuta. Ahal dela behintzat, kontserbazio aktiboko neurriak aplikatu beharko lirateke; esate baterako, titularitate pribatukoak diren eta balio ekologiko handia duten basoak udalaren lur ondarean sartuta, edota lurraldea zaintzeko akordioak ezarrita, baso horiek kontserbatuko direla eta baso-masa helduagoak osatzera iritsiko direla bermatuko den moduan. Kontserbatu eta lehengoratu beharreko masa horietan sartu beharko lirateke, KBZan jasotakoek gain, EAEko ibai eta erreken LAPean "ondo kontserbatutako landaretza" gisa izendatuak dauden Alkiza errekaen eta Arraiaga errekaen ondoko zerrendak.
- 2.2.1.3. Batasunaren intereseko habitata. Batasunaren intereseko habitatak zaintzen eta hobetzen saiatu beharko da, zonakatze egokia eginda eta lurzoruaren erabilerak behar den moduan araututa, eta habitat mota bakoitza eta honen kudeaketak eskatzen dituen baldintzak aintzat hartuta. Nolanahi ere, aurreko apartatuan adierazitakoaren ildotik, hobekien kontserbatuak dauden baso habitatak Babes berezia kategorian sartu behar dira.
- 2.2.1.4. Flora meatxatua. KBZaren barruan flora espezie ugari mehatxatuta egoteaz gain, Narcissus pseudonarcissus ere badago Alkizako herrigunean bertan. Hori horrela, botanikan adituek prospekzio bat egin beharko dute batez ere lurzoru urbanizagarrian sartzeko planteatu diren esparruetan espezie hori badagoen ala ez erabakitzeke; eta, hala egokituz gero, behar diren kontserbazio neurriak finkatzeko.
- 2.2.1.5. Nekazaritzarako gaitasun handiko lurrak. HAPOk behar den moduan babestuko du, nekazaritzarako duen produktibitatea dela eta, Nekazaritza eta basozaintzari buruzko LAPean Balio Estrategiko Handiko lurzoru gisa kalifikatutako eremua; izan ere, Alkizako udalerrian urria baita lurzoru hori, sailtxo bat Arana auzoan eta beste bat Aldapa auzoan. Lurzoru horien galera edo narriadura saihestu behar da eta, ahal dela, betidaniko nekazaritza erabilerari eusteko modua sustatu.
- 2.2.1.6. Korridore ekologikoak. Hernio Gatzume KBZ Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sareko gune bat da; eta Alkizako udal barrutiaren gainerakoa Sare horrekiko inpaktuen arintze-gunean dago. Korridore ekologikoei dagokienez, kudeaketa helburu egokiak ezartzea gomendatzen dugu; hau da, inpaktuak prebenitzea, korridoreak zaintzea eta, bidezko bada, berezko landaretzaren elementuak berreskuratzea, hala nola nekazaritza, abeltzaintza eta ehiza aprobetxamenduen ustiaketa iraunkorra egitea. Hori horrela, Sarea osatzen duten elementuei baldintzatzaile gainjarri bat aplikatzea proposatzen dugu, nekazaritza eta basogintzako LAPean ezarritakoari jarraituz.
- 2.2.1.7. Paisaiaren Kalitatea. Asteasu 090 ikusarroak eta Alkiza 023 ikus-arroak (eta horietan dago ia-ia udal barruti osoa) kalitate handiko paisaia dute, eta EAEko paisaiaren katalogoan sailkatuak daude. Paisaiaren kalitatea zaintzea aurreikusitako behar da plangintzaren fase guztietan, bai HAPOn bitartez egiturazko antolamendua egin eta erabilerak esleitzerakoan, eta bai HAPOn garatzeko plangintzan eta urbanizazio proiektuetan urbanizazio baldintzak ezartzerakoan. Horregatik, hirigintza jarduketari ekin aurretik paisaian integrazteko azterlan bat egitea gomendatzen dugu, Euskal autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko 90/2014 Dekretuak, ekainaren 3koak, 7. artikuluan xedatutakoari jarraituz.
- 2.2.1.8. Kultura ondarea osatzen duten ondasunak. HAPOn identifikatu egin behar dira, eta modu egokian babestu, bai izendatutako edo inbentarioan sartutako kultur ondasunak, eta bai balio arkeologikoa izan

dezaketen eremuak edo gune megalitikoak. Ildo horretan aintzat hartuko da Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak bidalitako txostena.

- 2.2.1.9. Kantauri ekialdeko Plan Hidrologikoan jasotako gune babestuak. Gainjarritako baldintzatzaileei eta hauek erabileretan izan lezaketen eraginari dagokienez, HAPOn aintzat hartu beharko dira Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoko gune babestuen erregistroan jasotako eremuak.
- 2.2.1.10. Lurpeko akuiferoak. Alkizako udal barrutia 016.309-Tolosa lurpeko ur masaren gainean dago; bere lurrazalaren gehiengan material iragazkorrak ditu eta, horien eraginez, akuiferoak kutsatzeko arriskua handia edo osoa handia da udalerriak hartzen duen eremu gehiengan. Horregatik, lurzorua kutsa lezaketen jarduerak saihesten ahalegindu behar da, eta nekazaritza eta basogintzako jarduerak ahalik eta arreta handienaz egin; hau da, Nekazaritza lanetan Egoki Jarduteko Kodea zorrotasun osoz aplikatu behar da.

## **2.2.2. BALIABIDE ETA EREMUAK. ESKAKIZUNAK TXERTATZEA**

- 2.2.2.1. Ernio-Gatzume Kontserbazio Bereziko Zona (KBZ), HAPOk araudiak kontutan eduki da. Eskatu bezala Ingurumen-Azterketa estrategikoan adierazten den eran (3.2, 4.4, 5.4.9) baldintzatzaile gainjarri eran sartu da ere.

Ernio-Gatzume KBZ-ri buruzko aipamenak ugariak dira HAPOn dokumentuen baitan (K dokumentuan nonahi eta F Dokumentuan 12, 50, 53, 82 artikulutan). Eta bere Egiturako Antolamenduaren Planoak deitutako J Dokumentuko EA4 planoan KBZ-ri dagokion zonifikazioa marrazten da.

- 2.2.2.2. Basoari buruzko xedapenak eskatutakoaren ildotik doaz (H Dokumentuan 38 artululua, F Dokumentuko 12, 37, 39, 40, 41, 43, 47 artikulua, K Dokumentuko 1.5, 2.6, 3.2, 5.4, 5.8.2, 6.4, 7.4, 7.5, 7.7, 9.2 atalak).
- 2.2.2.3. Batasunaren intereseko habitatak (Intereseko habitaten planoan K Dokumentuko 15 zenbakiduna). Haltzadi kantauriarra - Galeria-basoak (K Dokumentua 5.4.3 atala). Iarratu gabeko belardi atlantikoak (K Dokumentua 6.3 atala). *Alnus glutinosa* eta *fraxinus excelsior* (K Dokumentua 3.2.1, 3.2.2, 4.2.1, 5.4.3, 5.4.4, 7.5 atalak). *Festuco-brometalia* belardi lehorrak (K Dokumentua 5.4.3 atala). *Nardus* (K Dokumentua 3.2.1, 3.2.2, 5.4.4, 6.2, 9.2, atalak). Landaredia kasmofitikodun malda arrokatu kaltzikolak (K Dokumentua 3.2.1, 4.4, 5.4.3, 5.4.4, 5.6.1, 6.2, 9, 9.2 atalak). Pagadi azidofilo atlantiarra (K Dokumentua 5.4.3, 5.8.2 atalak). *Alopecurus pratensis* (K Dokumentua 3.2.2, 5.4.3, 5.4.4 atalak). Hobekien kontserbatuta dauden baso-habitatak BABES BEREZIA kategorian sartzen dira.
- 2.2.2.4. *Narcissus pseudonarcissus* (K Dokumentua 5.4.3 atala).
- 2.2.2.5. Nekazaritzarako gaitasun handiko lurrak. HAPOk babesten ditu (K Dokumentua 1.5.9, 2.11.7, 3.2.1, 5.4.9, 6.2, atalak). Balio estrategiko handiko azpikategoria sartu da Alkizako lurzoru urbanizaezineko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko kategorian, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak zehaztutako erabileren erregulazioarekin.
- 2.2.2.6. Korridore ekologikoak. Irismen Dokumentuak proposatuaren ildotik doaz HAPOn jasotako xedapenak (K Dokumentua 3.2, 3.2.2, 4.4, 5.4.8, 5.4.9, 7.7.2, atalak).
- 2.2.2.7. Paisaiaren Kalitatea. Horren aldeko xedapenak K Dokumentuko hainbat ataletan jasotzen dira (1.5, 2.11.7, 5.6, 5.8).
- 2.2.2.8. Kultura ondarea osatzen duten ondasunak. HAPOn E Dokumentua den Katalogoa, kultura ondareko elementuak babesteko egina da. Babeserako araudia definitzen du eta babestu beharreko elementu guztien fitxa zerranda dakar, zeinean elementu bakoitzeko ezaugarriak, babes maila eta babestu beharreko osagaiak.
- 2.2.2.9. Kantauri ekialdeko Plan Hidrologikoan xedatutakoa HAPOn kontutan eduki da babeserako zonak definitzeko (K Dokumentua 1.5.5, 2.4, 2.11.7, 3.2.1, 5.4.5, 5.4.9, 6.2, 9 atalak).
- 2.2.2.10. Lurpeko akuiferoei buruzko xedapenak HAPOn duten zeregina babes neurriak definitzea da, baldintzatzaile gainjarri eran aplikatuko direnak (K Dokumentua 3.2.2, 6.2, 7.4.2, 7.16.2, atalak)..

### **2.3. KOKALEKU ETA JARDUERA PROBLEMATIKO ETA ONARTEZINEN BALORAZIOA**

#### **2.3.1. BALORAZIOA**

Alkizako herrigunea nabarmen hedatu da azken 25 urte hauetan, izan ere plazaren eta elizaren espazio komunaren inguruan ezarritako baserri multzo txiki bat izatetik herrigunea kokatua dagoen hegiak osatzen duen lautadaren luzeran eraikitako bizitegi bat izatera pasa da. Hain zuzen ere, etxebizitza familiarren kopuruak % 82ko gorakada izan du 1991tik 2006ra bitarte. Urte horretatik aurrera, hedatze hori eten egin dela dirudi, erabilgarri zegoen lurzoru urbanizagarria bete egin baita.

HAPOn egin den planteamenduak hiria hedatzearen ildoari jarraitzen dio; hori horrela, Planaren indarraldian zehar -8 urte inguru, oraingo- 43 eta 53 etxebizitza bitarte eraikitzea aurreikusi da, eta horrek % 34 arteko gehikuntza dakar. Bizitegirako gaitasunaren hazkunde hori etxebizitza berriak eraikita lortzea aurreikusi da, hau da, lehendik zutik dauden etxebizitzak zatitzeko aukerari heldu gabe, alegia.

Hasierako agirian ez da informaziorik eman udalerrian beharrezkoa den bizitegi gaitasuna kalkulatzeko erabili diren parametroei buruz; eta horrek zaildu egiten du proposamenaren bideragarritasuna balioztatzeke lana. Proposamen horrek, edozein kasutan ere, Alkizako hiri ingurunearen hazkunde nabarmena Dakar berarekin.

Gai horri gagozkiola, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, hauxe dio 14.2 artikuluan: "lurzoru urbanizagarri modura sailkatutako eremuek proportzio-erlazio egoki eta zuzena eduki beharko dute udalerrian aurreikusitako biztanle-hazkunderarekin, 3. artikuluan ezarritako iraunkortasun printzipioaren arabera, eta udalerriak duen harrera-ahalmena kontuan hartuta".

HAPOn indarraldian zehar beharko den bizitegi-gaitasuna zehaztu ondoren, antzemandako premiei erantzuteko kokaleku edo diseinu aukera desberdinak aztertu eta ingurumenaren ikuspegitik alderatuko dira, eta horrela, hautabiderik egokiena aukeratuko da, betiere ingurumen alderdiak, sozialak eta ekonomikoak kontuan hartuta. Edozein kasutan ere, erabakitzen den hautabideak bat etorri beharko du lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, 3. Artikuluan ezarritako hiri garapen iraunkorraren printzipioekin. Eta kontuan hartuko da jarduerak ingurune sentiberan planteatzen direla, ingurumen kalitate handia eta hiri hazkunderako gaitasun mugatua duen ingurune batean, hain zuzen ere.

Urbanizazio berriak ezartzeko aztertu diren esparruen artean, 3.-Laurgain eta 5.-Elizegi izeneko eremuak garapen txikiak dira, 2 etxebizitza bakoitzean; oraingo eraikinen artean geratzen diren hutsarteetan sartuko dira. 1.- Plaza aurea (16 etxebizitza, aurreikusitako diseinuaren arabera), 2.- Santiago (30 etxebizitza) eta 4.- Plaza atzea (23 etxebizitza) esparruak askoz gehiago garatuko dira, oraingo hiri-bilbea zabaldu egingo baitute Iparralderantz (Plaza atzea) edo Hegoalderantz (Plaza aurea eta Santiago aurea). Aldiz, 6.-Iribati esparru oso handia da (39 etxebizitza), oraingo hiri-bilbetik bereiz dago, Alkizako herrigunera sartzeko errepidearen ondoan.

Proposatutako esparru horietan sega-belardiak daude gehienbat; hortaz, nekazaritzarako erabiltzen dira. Hala ere, 4.-Plaza atzea esparruan eta, batez ere 6.-Iribati esparruan, harizti-baso mistoko unadak ukituko liriteke, azkeneko horretan batik bat.

Alkizako herriguneak kalitate handiko paisaia du (Alkizako arroa katalogatua dago), eta alderdi horrek eragin oso positiboa du herritarren bizikalitatean. Horregatik, hiri garapen berriak planteatu eta seinatzerakoan ez da ahaztu behar kalitate hori mantendu egin behar dela.

Hori horrela, hautabide desberdinakaztertzerakoan honako ingurumen alderdiak hartu behar dira kontuan: hartuko den lur azalera, bizitegi garapenek paisaian izango duten ondorioa, eta baliabideetan zein nekazaritzako ustiapenetan nola eragingo duten. Azkeneko alderdi hori dela-eta, hautabide bakoitzak nekazaritza ustiategietan izan dezakeen eragina aztertu beharko litzateke eta, horretarako, Nekazaritza eta basogintzako LAPean ezarritakoa hartuko da abiapuntutzat; hau da, "planak aplikatzeak eta obrak edo jarduerak egiteak nekazaritzaren sektorean eragindako ondorioa ebaluatzea"ri buruz ezarritakoa, alegia.

Kontuan hartu behar dira, halaber, biztanlehazkunderak eragin ditzakeen ingurumen inpaktuak; esate baterako, hondakin uren eta hiri hondakinen bolumen handiagoa, ibilgailu motordunetan egiten diren joan-etorriak areagotzea, eta abar

Nolanahi ere, baztertu egin beharko litzateke 6.-Iribati izeneko esparrua lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzeko aukera; izan ere, kokaleku problematikoa da ingurumenaren ikuspegitik begiratuta. Horrez gain, zuzeneko inpaktu

nabarmenak eragingo lituzke baliabide baliotsuetan (hariztia, segarako belardi sail handia), hirigintza erabileretarako mugatua dago (malda, ikus-eragina), eta gune berri bat sortuko litzateke oraingo hiri-bilbetik bereiz, hirigintza iraunkorraren oinarritzko printzipioetatik urrunduz.

### **2.3.2. BALORAZIOAREN TXERTATZEA**

HAPO-ren Behin-behineko onarpenerako dokumentuan 31 etxebizitza berri aurreikusten da, beraz Irismen Dokumentuak azertu zuena baino txikiagoa da. Horren gain, egun dauden etxebizitzaren zatiketa aurreikusten da ere(F Dokumentua 34.1 artikulua).

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen arabera egindako bizitegi-lurzoru eskaintzaren kuantifikazioaren kalkuluak Alkizan 18 eta 85 etxebizitza artean aurreikusi behar direla ematen du, HAPO honen aurrerakineko dokumentuan ikus daitekeenez.

HAPO-ren Behin-behineko onarpenerako dokumentuan Hiri zoruaren zabaltzerako barruti bakarra aurreikusten da, 6 sektorea, 26 etxebizitza tasatuak ordenatzen dituen.

Lurzoru berrien urbanizazioa 0,92 Ha handituko da (proposatzen den lurzoru urbanizagarriko sektore berriari dagokiona), hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako lurzoruaren % 17 inguru.

Horren ingurumenaren gaineko eragina Ingurumen-Azterketa Estartegikoa deituriko K dokumentuko 6.3.6 atalean aztertzen da, eta 6.4 kapituluaren eraginean mailak adierazten dira. Guztiak inpaktu moderatu edo inpaktu bateragarri kategorietan sartzen dira. K dokumentuko IV eranskina den Nekazaritzaren Sektorearen Gaineko Eraginari Buruzko Txosteneko 4. Kapituluaren neurri zuzentzaileak definitzen dira.

Gaur egun Alkizak 178 etxebizitza ditu, hirigunean 85. Planteatzen diren berriekin hirigunean etxebizitza kopuruaren hazkuntza %26,7 da, eta udalerrian %17,4.

Alkizako herriguneak kalitate handiko paisaia du (Alkizako arroa katalogatua dago), eta alderdi horrek ragin oso positiboa du herritarren bizikalitatean. Horregatik, planteatu den herrigunearen zabaltzea dagoenaren luzapen eran plantatu da. Eraikin berriek ez dute egun herriguneak duen zerumuga aldatzen.

HAPO-k planteatzen duen biztanleen hazkuntzak eragiten dituen ur-horniduraren eskariaren handitzeak eta ur-beltzen isurketen handitzeak, sistema horietan eragin negatiborik ez duten justifikazioa B Dokumentuaren 3.1 atalean egiten da. Sistema horien gaur egungo azpiegiturak eskariaren hazkuntzari erantzun diezaiokete.

## **2.4. ZORU URBANIZAEZINAREN ORDENAZIOAN GOGOAN HARTU BEHARREKO INGURUMEN ALDERDIAK**

### **2.4.1. INGURUMEN ALDERDIAK**

2.4.1.1 Udalerriko lurzoru urbanizaezin guztirako erabilerak eta jarduerak arautzeko, Lurraldea Antolatzeko Zuzentarauetan eta Nekazaritza eta basogintzako Lurraldearen Arloko Planean zehaztutako antolaketa kategoriak esleituko dira.

2.4.1.2 Lurzoru urbanizaezina kategorizatzeke, eremu bakoitzaren ezaugarriak, eremu horien harrera-gaitasuna, eta hartzen dituzten natur baliabideen balioa hartukodira oinarritzat.

2.4.1.3 Lurzoru urbanizaezina kategorizatzerakoan, honako zehaztapen hauei jarraitzea gomendatzen dugu:

Nekazaritza eta basogintzako LAPak "Balio Estrategiko Handiko" Nekazaritza eta abeltzaintzako kategorian sartzen duen udalerriko lur azalera txikia, Arana auzoan eta Aldapa auzoan dagoena, lurzoru babestua izango da, eta LAPean jasotako Erabilerak eta Jarduerak Arautzeko Matrizean kategoria horri buruz ezarritako erabilera araubidea aplikatuko zaio.

Babes berezia kategoria definituko da, Lurraldea Antolatzeko Zuzentarauetan zehaztu bezala. Kategoria horretan sartuko dira hobekien kontserbatuak dauden baso erdinaturalak, eta beste habitat interesgarri batzuk, baldin eta hauek kontserbatzeko, nekazaritza edo abeltzaintza erabilerarik behar

ez bada behintzat. Bidezko iritziz gero, interes bereziko lursailak Udalaren lur ondarean sartzeko aukera aztertuko da (erosita, lagata, desjabetuta), edo bestela, jabeekin lurraldea zaintzeko akordioak ezarriko dira, habitat horiei eusteko edo hobetzeko.

Ingurumenaren hobekuntza kategoria ezarriko da, beharrezkotzat ikusten bada. Eta kategoria horretan sartuko dira, hala egokituz gero, ingurumen baldintzak berreskuratzeko premia erakusten duten eremuak; esate baterako, higadurak narriatutako eremuak edo espezie arrotz inbaditzaileen presentzia nabarmena dutenak. Ernio-Gatzume KBZ izendatzeko Dekretuan mugatutako Ekologikoki berreskuratzeko lehentasunezko eremuak kategoria horretan sar daitezke, baldin eta KBZ oso-osorik Babes berezia kategorian ez sartzea erabakitzen bada.

- 2.4.1.4 Baldintzatzaile gainjarriak. Alkizako natur ingurunearen eta nekazaritza eremuaren ezaugarriak ikusita, baldintzatzaile gainjarri hauek zehaztea eta antolamenduko kategoriei aplikatzea komeni da:

Ernio-Gatzume Kontserbatzeko Zona Berezia, baldin eta KBZ oso-osorik Babes berezia kategorian ez sartzea erabakitzen bada.

Akuiferoak kutsatzeko arriskua duten eremuak.

Eremu higagarriak. Nekazaritza eta basogintzako LAPean halakotzat definitutakoak

- 2.4.1.5 Lurzoru urbanizaezinean onargarriak diren jarduerak eta instalazioak kokatzeko eta garatzeko baldintzak ezarriko dituzten ordenantza arautzaileak. Besteak beste, honako alderdi hauek arautuko dituzte: hondakin uren bilketa eta tratamendu egokia, obren eta eremu narriatuen paisaia baldintzen lehengoratzeko, pistak egitea, egiturak paisaian integratzea, heskaien zaintza eta landa-eremuaren zein naturaren ingurumen baldintzak hobetzeko beharrezkotzat jotzen diren beste alderdi batzuk.

## **2.4.2. INGURUMEN ALDERDIEN TXERTATZEA**

- 2.4.2.1. HAPO honen Hirigintza Arau Orokorrak tituluko F Dokumentuko 9. Artikuluan udalerriko zona globalen sistematizazioa egiten da, eta horren barruan landa lurren zonak ageri dira, Lurraldea Antolatzeko Zuzentarauetan eta Nekazaritza eta basogintzako Lurraldearen Arloko Planean zehaztutako antolaketa kategoriekin bat datoz.

- 2.4.2.2. Lurzoru urbanizaezina kategorizatzeke, eremu bakoitzaren ezaugarriak, eremu horien harrera-gaitasuna, eta hartzen dituzten natur baliabideen balioa hartu dira oinarritzat HAPO honetan (K dokumentua 1.5.4, 1.5.5, 1.5.8, 2.1.10, 2.2, 2.6, 2.9.1, 3.2 ataletan, azken horretan bereziki).

- 2.4.2.3. Nekazaritza eta basogintzako LAPak "Balio Estrategiko Handiko" Nekazaritza eta abeltzaintzako kategorian sartzen duen azalera txikia, lurzoru babestu da, eta LAPean jasotako Erabilerak eta Jarduerak Arautzeko Matrizean kategoria horri buruz ezarritako erabilera araubidea aplikatu zaio HAPO honetan (K Dokumentua 3.2 atala, F dokumentua 12 artikulua D7 puntuan).

Babes berezia kategoria definitu da, Lurraldea Antolatzeko Zuzentarauetan zehaztu bezala (K Dokumentua 3.2 atala, F dokumentua 12 artikulua D1 puntuan).

Ingurumenaren hobekuntza kategoria ezarri da (K Dokumentua 3.2 atala, F dokumentua 12 artikulua D3 puntuan).

- 2.4.2.4. Baldintzatzaile gainjarriak Irismen Dokumentuak eskatu bezala definitu dira HAPO-n (K Dokumentua 3.2.2 atala, F dokumentua 44-60 artikulua).

- 2.4.2.5. Lurzoru urbanizaezinean onargarriak diren jarduerak eta instalazioak kokatzeko eta garatzeko baldintzak ezartzeko ordenantza arautzaileak egin dira (H Dokumentua, Eraikuntzako eta Urbanizazioko Ordenantzak, 36-55 artikulua) eta osagarri diren beste xedapenak egin dira ere ( F dokumentua 12, 79, 82-86, artikulua).

## **2.5. HIRI-ZORU ETA ZORU URBANIZAGARRIAREN ORDENAZIOAN GOGOAN HARTU BEHARREKO INGURUMEN ALDERDIAK**

### **2.5.1. INGURUMEN ALDERDIAK**

- 2.5.1.1. HAPOn aurreikusitako hirigintza jarduerak, proportzionaltasun irizpideak kontuan hartuta gauzatuko dira, eta une bakoitzean benetan dauden premietara egokituko dira, lurzoruaren gehiegizko kontsumoa saihestuz.
- 2.5.1.2. Eraikinen iraunkortasuna ziurtatzeko eta bizitegirako eremuen ingurumen kalitatea bermatzeko ahalegina egingo da; hori horrela, bai eraikuntza eta urbanizazio ordenantzetan, eta bai sektore berrien antolamendu xehatuan, honako helburu hauek lortzera bideratutako irizpideak eta baldintzak jarriko dira:
- 2.5.1.3 Hiri eremuak eta zona urbanizagarriak natur arriskuen mende egon daitezen ekiditea.
- 2.5.1.4 Eraikin berrien efizientzia energetikoa bermatzea, eraikinen orientazioa uneoro kontuan hartuz eraikinaren portaera energetikoa hobetzeko, eguzki-argia hobeto aprobetxatzeko, isolamendu termikoa areagotzeko, eta abar. Era berean, eraikin berriek energia berriztagarriak (eguzki-energia, eolikoa,...) sortzeko aukerak baliatzeko modua bilatuko da. Ildo horretan, eta Eraikuntzako Kode Teknikoak dioenarekin bat etorritik, ur bero sanitarioa hornitzeko edota berokuntzarako, eguzki-indarra bilduko duten sistemak eta metagailuak ipiniko dira.
- 2.5.1.5 Berokuntza banatuko sistemak ezartzeko aukera aztertuko da, energia berriztagarrien sorburuak baliatuz, ahal dela.
- 2.5.1.6 Esparru desberdinetako espazio publikoetan eta eraikin berrien erabilera komuneke guneetan, kontsumo txikiko argi sistemak erabiliko dira, aldi berean argi kutsadura ekidindo dutenak, hain zuzen.
- 2.5.1.7 Eraikin berriak eta hiri azpiegiturak, bai begien bistara eta bai estetikoki txertatzerakoan, Alkizako gune historikoaren ezaugarriak bere horretan mantenduko dira.
- 2.5.1.8 Lurzoru urbanizagarriko sektore bakoitzeko hirigintza arau berezietan, ingurumen baldintzen zerrenda bat jasoko da; eta baldintza horiek derrigorrez bete behar dira bai sektorearen antolamendu xehatuan eta bai urbanizazio proiektuetan. Besteak beste, sektorearen hirigintza lanak gauzatzeko aplikatu beharreko neurri babesgarri eta zuzentzaileak jasoko dituzte, eta bidezkoa denean, baita urbanizazio gastuak jo behar diren neurri konpentsagarriak ere.

### **2.5.2. INGURUMEN ALDERDIEN TXERTATZEA**

- 2.5.2.1 HAPOn aurreikusitako hirigintza jarduerak, proportzionaltasun irizpideak kontuan hartuta gauzatu dira, dauden premietara egokituko dira, lurzoruaren gehiegizko kontsumoa saihestuz. Hala egiaztatu da dokumentu honen 2.3.2 atalean.
- 2.5.2.2 Eraikinen iraunkortasuna bermatu da HAPO honetan, urbanizazioen eta eraikinen eraikuntza baldintzak H Dokumentua, Eraikuntzako eta Urbanizazioko Ordenantzak deitutakoan ezartzen dira.
- 2.5.2.3 Ordenazioaren planoetan ikus daitekeenez aurreikusitako hiri eremu eta sektore hiritargarria ez daude arriskutsuak izan daitezkeen tokitan.
- 2.5.2.4 Eraikin berriek Kode Teknikoa betetzeaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen 80/2022 Dekretuak eta hori ordezkatu dezakeen edozein arau xedatutakoa bete behar dute eraikin berriek, beraz Irismen Dokumentuak eskatutakoa bete behar dute (H dokumentua 15, 16, 18 artikulua).
- 2.5.2.5 Hala jasotzen da H Dokumentuko 15. Artikuluan eta Hirigintza Arau Partikularrak eta Antolamendu Xehatuaren Planoak deitutako G Dokumentuan, 6. Sektoreko arauetako 3.J.2 atalean..
- 2.5.2.6 Hala jasotzen da H Dokumentuko 61. artikuluan.
- 2.5.2.7 Hala jasotzen da H Dokumentuko 16, 20. artikuluan.
- 2.5.2.8 HAPO honen Hirigintza G Dokumentuan, 6. Sektoreko araudia definitzen da. 6 Sektorea plan honetan aurreikusten den Hiri zoruaren zabaltze bakarra da. Gorde beharreko ingurumen baldintzak kontutan eduki

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**C DOKUMENTUA. INGURUMEN ARLOAK H.A.P.O.-N TXERTATZEAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA**

---

da eta 6. Sektoreko araudiko 2.G eta 4E puntutan, zeinetan urbanizazio proiektuak paisaia integrazioko azterlana eduki behar duela xedatzen den.

## **2.6. INGURUMEN –AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN EDUKIA ETA IRISMENA**

### **2.6.1. EDUKIA ETA IRISMENA**

Alkizako Udalak idatzi behar duen ingurumen azterketa estrategikoa (IAE) HAPOn osagai bat izango da. Azterketa horretan identifikatu, deskribatu eta ebaluatuko dira Plana aplikatzen etor daitezkeen eta ingurumenean eragin dezaketen inpaktu aipagarriak; eta Planaren aplikazioak ingurumenean eragin ditzakeen kalteak prebenitzeko edo minimizatzen, teknikoki eta ingurumenaren ikuspegitik bideragarriak diren zentzuzko alternatibak emango dira.

Ingurumen azterketa estrategikoa, gutxienez, ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, IV. Eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izango du. Era berean, planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, ingurumenaren iraunkortasun txostenei buruz II. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izango du.

Bi eranskin horietan zehaztutako apartatuak garatzeko, txosten honen aurreko apartatuetan adierazitako alderdiak landu beharko dira; baita administrazioek, erakundeek eta gainerako interesdunek beren alegazioetan problematikotzat jo dituzten ingurumen arloko gaiak ere, halakorik izanez gero; eta segidan aipatuko ditugunak:

Planaren eduki eta helburu nagusien laburpena, eta beste plan eta programa batzuekiko erlazioa

Ingurumen azterketa estrategikoan, HAPOn edukia jasoko da laburtuta, eta laburpen horretan adieraziko dira aurrekariak, helburuak eta aurreikusitako jardura eta zehaztapenak; baita aintzat hartu diren gainerako hautabideak ere. Era berean, Planean mugatutako esparruen planifikazio xehatua egiteko aurreikusi diren jardueren eta garapen tresnen denbora-planifikazioa ere azaldu egingo da.

Bestetik, HAPOn horrek hiri antolaketako beste tresna batzuekin izan ditzakeen elkarreaginak, hala nola planarekin zerikusia izan lezaketen lurralde planekin eta arloko planekin izango dituen erlazioak aztertu beharko dira. Kontuan hartu beharko dira, gutxienez: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldea Antolatzeko Zuzentarauak (LAZ), Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana, EAEn nekazaritza eta basozaintzari buruzko Lurraldearen Arloko Plana, Euskal Autonomia Erkidegoko ibaiak eta errekek (isurialde kantauriarra) antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana, eta honen 1. Aldaketa, Jardura Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamendurako Lurzoru Publikoa sustatzeko Lurraldearen Arloko Plana, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2009-2015) eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan jasotako Proiektu Proposamena, Euskal Autonomia Erkidegoaren barruko arroen esparrurako, Hernio-Gatzume KBZ (ES2120008) izendatzeko kontuan hartu diren kontserbazio helburu eta neurrien agiria.

HAPOn helburuek eta jarduerak, esparru horretan eragiten duten planen eta programen helburu eta xedapenekin duten koherentzia eta erlazioa zehaztuko da. Horrek, xede komunak lortzea izango du helburu, eta halaber, HAPOn barruan jarduteko dauden hautabideak aztertzea, betiere gainerako programen helburuekin eta jarduketa-ildoekin ezkatutzeak, desadostasunak edo bateraezintasunak gerta litezkeen kasuetan.

Era berean, HAPOn eraginpeko eremuan aplikatu beharreko gainerako planekin sor litezkeen bigarren mailako ondorioak, metagarriak eta sinergikoak identifikatuko dira. Era horretan identifikatutako ondorioak, halakorik izanez gero behintzat, Planaren eraginak identifikatu eta ebaluatzen atalean aztertuko dira.

Azterketa horrek, bestetik, HAPOn helburu, irizpide eta zehaztapenak Alkizako Tokiko Agenda 21ean jasotako jarduketa planarekin bateragarriak diren ala ez analizatuko du. Eta gainera, HAPOn planteatutako antolamenduak Tokiko Agenda 21aren planean jasotako egintzei zein neurritan erantzuten dien azalduko du.

Nazioartean, batasunaren mailan, estatuan, erkidegoan, foru mailan edota udalean ingurumena babesteko ezarritako helburuak, eta plana egituratzerakoan helburu horiek aintzat nola hartu diren egiaztatzea.

IAEan azaldu egin beharko da udal antolamenduan nola txertatu diren irismenagiri honen 3. apartatuan, ingurumena babesteari eta iraunkortasunari buruz adierazitako irizpideak, edota HAPOn egiterakoan ezarritakoak, halakorik izanez gero. Eta horretarako, ahal dela behintzat, finkatutako edo proposatutako adierazleak eta mugak erabiliko dira.

Alkizako udalerraren ingurumen karakterizazioa eta berorren bilakaera, klima-aldaketa kontuan hartuta

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**C DOKUMENTUA. INGURUMEN ARLOAK H.A.P.O.-N TXERTATZEAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA**

---

Alkizako udalerrriaren ingurumen ezaugarrien deskripzio bat jaso behar du txostenak, egungo egoeraren diagnostikoa eginda. Hori horrela, beharrezko azterketa espezifikoko guztiak egingo dira, kontsultatu diren informazio iturriak eta bibliografia adieraziz eta lekuan bertan egindako lanaren eta erabilitako metodologiaren berri emanez.

Diagnostiko horretan deskribatu egingo da natur baliabideen, nekazaritzakoen eta paisaiaren egoera, eta hiri-eremuen, industrialdeen eta landa eremuen ingurumen kalitatea; era berean, bereziki zaindu edo babestu behar diren elementu edota baliabideak identifikatuko dira.

Udalerrriak bizi dituen ingurumen arloko presio eta arazo nagusiak aztertuko dira, arazo horiek HAPOn nola eragingo duten balioztatzeke, edota arazo horiek larriagotuko dituen aztertzeke.

Deskripzio horrek ez du ingurune fisikoaren ezaugarrietara mugatu behar; horrez gain, Planean ezarritako antolamenduaren ondorioz nabarmen alda daitezkeen hiri metabolismoko alderdiei edo aldaerei buruzko informazioa eman behar du; esate baterako, ur hornidura eta saneamenduko sistemak, edo mugikortasun sistema (garraio publiko/pribatua, motorduna/motorgabea), eta abar.

Udalerrriaren egungo ingurumen egoera diagnostikatu ondoren, egoera horrek izan lezakeen bilakaeraren aurreikuspen bat egingo da, ingurumenean eragin dezaketen joera sozioekonomikoak –espero den klima-aldaketa, esaterako– kontuan hartuta. Azken faktore horri dagokionez, klima-aldaketak udalerrian eragin litzakeen inpaktuak identifikatzea komeni da; eta, era berean, aldaketa horretara egokitzeko batez ere zein esparrutan jardun beharko litzatekeen erabakitzea.

Alkizako ingurumen ezaugarriak deskribatu ondoren, xehetasun handiagoz aztertuko dira HAPOn jasotako jarduera adierazgarrienak edo ondorio handienak eragin ditzaketen jarduerak ezartzeko

aurreikusi diren eremu edo kokalekuak; esate baterako, hiri garapenak egikaritzeko aurreikusi diren esparruak.

Era berean, lurzoru horiek HAPOn jasotako aurreikuspenak hartzeko duten gaitasuna aztertuko da. Azterlan horretan aintzat hartuko dira, besteak beste: uren administrazioak emango duen informazioa, uren jabari publikoa babesteari buruz, eta eskaera berriei erantzuteko beharrezkoak diren ur baliabideei buruz, hala nola errepedeen gaian eta lehendik badauden gainerako azpiegituren gainean eskumena duten administrazioek egindako informea, planean jasotako proposamenek izan ditzaketen eraginei buruz.

Atal horretan, agiriari azkenean erantsiko zaizkion gai guztiei buruzko kartografia – eskala egokian egina– hartuko da oinarritzat.

HAPOkoko xedapenek eta jarduketek ingurumenaren gainean izango dituzten ondorio aipagarriak identifikatzea eta balioztatzea.

HAPOn aurreikusitako jarduketek ingurunekeko elementuetan sortuko dituzten ingurumen eraginak identifikatu eta balioztatuko dira; elementu horien artean honakoak aipa daitezke, besteak beste: Habitatak eta espezie urriak edota Interesgarriak, Nekazaritzarako lurrak eta nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak, Lurzorua artifizializazioa, Ur masak eta uren araudiaren arabera babestuak dauden eremuak, Paisaia, Giza osasuna, Monumentu eta arkeologi ondarea.

Era berean, HAPON planteatutakoak faktore hauetan izango duen eragina zenbatetsiko da: Mugikortasun premia, Ura eta energia bezalako baliabideen kontsumoa, Kutsatzaileen isurpena eta hondakinen sorrera.

Aztertutako inpaktu horietan sartu behar dira bigarren mailako ondorioak, metagarriak eta sinergikoak, positiboak zein negatiboak, iraunkorrak eta aldi baterakoak, epe labur, ertain eta luzerakoak.

Aztertutako inpaktu horietan sartu behar dira bigarren mailako ondorioak, metagarriak eta sinergikoak, positiboak zein negatiboak, iraunkorrak eta aldi baterakoak, epe labur, ertain eta luzerakoak.

Ondorioen identifikazio eta balorazio hori ez da mugatuko antolatutako esparruaren eraldaketa fisikoak eragin ditzakeen zuzeneko inpaktuetara (esate baterako, urbanizazioak lurzorua artifizializatzea). Horiez gain, aintzat hartu beharko dira, halaber:

Proposatutako antolamenduak ingurumenean eragingo dituen zehar ondorioak (adibidez, hondakin uren gehikuntza, etxebizitzaren edota jarduera ekonomikoaren kopurua gehitzearen eraginez).

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**C DOKUMENTUA. INGURUMEN ARLOAK H.A.P.O.-N TXERTATZEAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA**

---

Erabilerak eta jarduerak arautzeak eragindako ondorioak (adibidez, HAPOk eremu jakin batean abere granjak ezartzea baimentzean, era horretako jarduerak sortzen duten usainak eragindako eragozpenak).

Antzemandako ondorioen garrantzi posiblea zehazteko, ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 legeak, abenduaren 9koak, III. Eranskinean ezarritakoari, eta planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, III. eranskinean ezarritakoari jarraituko zaio.

Identifikatutako ondorio bakoitzaren tamaina eta garrantzia karakterizatu eta balioztatuko da. Eta zeregin horretan, ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, VI. eranskinaren 8. atalean adierazitako terminologia erabiliko da. Hori horrela, eraginaren adierazleak zehaztuko dira alde aurretik (adierazgarriak, garrantzizkoak, baztertzailak, zenbatu daitezkeenak eta erraz identifikatzeko modukoak). Adierazle horiek modu egokian azaldu behar dituzte bai ingurumen eragina

eta bai lortu nahi diren kalitate helburuak, onar daitezkeen mugak ezarrita. Horretarako, indarrean dagoen legeriak eta organo eskudunek kasu bakoitzerako emandako jarraibideak hartuko dira erreferentziazat.

Era berean, balorazio horretan erabakiko da, hala egokituz gero, HAPOren barruan zeintzuk diren indarreko lurralde, hirigintza eta ingurumen arloko plangintzarekin bateraezinak diren jarduketak, edota ingurumenean ondorio kritikoak edo onartezinak sortuko dituztenak. Kasu batean zein bestean, jarduketa horiek aldatu edota baztertu egin beharko dira.

Azkenik, arrazoitu egin beharko dira, egokiagoa dela pentsatuta, prozesuaren gerorako faseetan aztertzeke utzi diren alderdiak.

Ingurumenean integrazteko neurriak

Ingurumeneko txosten estrategikoan zehaztu egin beharko dira, HAPOn aurreikusitako jarduketek ingurumenean sortuko dituzten eta adierazgarritzat jotzen diren inpaktuak bakoitza prebenitu, murriztu eta, ahal den neurrian, konpentsatzeko neurriak.

Halaber, HAPOn ingurumen alderdiak sartzek ez luke mugatu behar gerta litekeen inpaktu bati erantzuteko neurriak ezartzera; izan ere, neurri horiek osatuz, udalerriko ingurumen arazoak onpontzen

eta ingurumen kalitate hobea lortzen lagunduko duten neurriak ezarri beharko lirakeke.

Hori horrela, Alkizako HAPO ingurumenean integrazteko, honako neurri mota hauek hartu behar dira:

Ingurumen alderdiak kontuan hartu behar dira lurraldea planifikatzerakoan eta hiria diseinatzerakoan; esate baterako, lurzoru ez-urbanizagarria natur balioen babesa bermatuko den moduan antolatzea; ondorio kaltegarriak eragin ditzaketen jarduerak arautzeko ordenantzak ezartzea; garapen berriak ezartzeko, oso sentiberak ez diren kokalekuak aukeratzea, eta abar. Neurri horiek prebentziozkoak izaten dira normalean (edo zuzentzaileak, lehendik badauden ingurumen arloko arazo edo inpaktu jakin batzuen kasuan), eta ohikoan ez dute berariazko aurrekonturik eskatzen.

HAPOko zehaztapenak garatuko dituzten plan eta proiektuen ingurumen ondorio negatiboak prebenitu, zuzendu edo konpentsatzeko neurriak. Neurri horiek guztiak egikaritze proiektuetako osagai gisa hartu behar dira, eta hala izanik, aurrekontuetan jaso beharko dira. Neurri horietako asko kasuan kasuko garapen plan edo proiektuan zehaztu beharko dira; baina, edonola ere, HAPOn neurri horiek identifikatu eta berorien gutxieneko karakterizazioa egin beharko da; era berean, garapen plan edo proiektuetan nahitaez bete beharrekoak direla adieraziko da.

Udalerriko ingurumen baldintzak hobetzeko jarduketak, beren helburua ekologia edo paisaia berreskuratzea, edota eremu nahiz esparru jakin batzuetako ingurumen kalitatea hobetzea denean.

Jarduketa horiek, bakoitzaren inguruko gorabeherak kontuan hartuta eta aurrekontuan erabil daitezkeen

kopuruaren arabera, udal aurrekontuen kargura finantzatu ahal izango dira, GFAk eta Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituzten dirulaguntzen bitartez. Bestela, hirigintzako jarduketan ondorioz galdutako natur ondarea konpentsatzeko neurriak direnean, urbanizazio gastuetan sartu ahal izango dira.

Era horretako neurrietan sar daitezke, besteak beste, eremu narriatuak bere onera ekartzeko neurriak,

**ALKIZAKO HIRI-ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**  
BEHIN-BEHINEKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA. 2025-EKO IRAILA  
**C DOKUMENTUA. INGURUMEN ARLOAK H.A.P.O.-N TXERTATZEAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA**

---

konektibitate ekologikoa sustatzera bideratutakoak, hala nola paisaia hobetzeko, habitatak berreskuratzeko edo biodibertsitatea sustatzeko proiektuak.

Hori horrela, lehengoratu beharreko kokalekuak edota ingurumen baldintzak hobetzeko jarduerak identifikatu eta horien lehentasunhurrenkera zehaztu egin beharko lirateke HAPOn, jarduera horiek gauzatzeko programa bat ezarrita.

Bestetik, ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak exijitzen duena betez, planak klima-aldaketan izango duen eragina arintzeko eta hari egokitzeko neurriak jasoko ditu ingurumen azterketa estrategikoak. Xede horretarako, IHOBek prestatutako gidaliburu metodologikoak erabil daitezke erreferentziatzat.

Plana ingurumenean integratzeko neurri horiek HAPOk hirigintza dokumentazioan jaso beharko dira; era berean, neurri horien kostu ekonomikoa zenbatetsi, finantzatzeko erak aurreikusi, eta egikaritzeko denboraplantzia ezarriko da. Halaber, HAPO garatzeko plan eta proiektuetan aintzat hartu beharreko neurriak zehaztu egingo dira.

Hautabideak aukeratzeko prozesuaren laburpen arrazoitua. Erabakitako hautabidea aukeratzeko arrazoiak.

Ingurumen azterketa estrategikoak, gainera, HAPOn helburuei erantzuteko teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak izan daitezkeen hautabide guztien ingurumen arloko azterketa bat jaso behar du. Horretan, aztertutako hautabide bakoitzak ingurumenean izan lezakeen eragina ebaluatuko da, eta planaren helburuei zenbateraino erantzungo zaien zehaztu, ingurumen arloko helburuei bereziki.

Hori horrela, azterketaren esparruan dauden ingurumen arloko elementu eta arazo nabarmenak identifikaturik, eta ingurumena babesteko helburuak ezarri ondoren, HAPO garatu ahal izateko eta bertan ezarritako helburuak betetzeko teknikoki, ekonomikoki, eta ingurumenaren aldetik bideragarriak diren hautabideak proposatu beharko dira. Eta horien artean, "0 hautabidea" sartu beharko da derrigorrez; hau da, Alkizako herriaren egiturazko antolamendua ez aldatzekoa.

Ahal denean, hirigintzako jarduerak marrazteko edo diseinatzeko aukerak konparatu egingo dira, aukera horiek ezartzeko erabil daitezkeen kokalekuak bezalaxe.

5. apartatuan adierazi bezala, bizitegi garapenak ezartzeko kokaleku posibleak proposatu aurretik, udalerriko etxebizitza berrien premia zehaztu behar da hasteko. Gainera, udalerriak etxebizitzak artzeko duen gaitasuna arrazoitzen egin behar da, parametro sozialak, demografikoak eta ingurumenekoak oinarritzat hartuta, eta betiere, lurralde plangintzak kuantifikazio horri buruz ezarritako mugak errespetatuz.

Behin bizitegirako gaitasuna zehazturik, hautabide desberdinak aztertuko dira; eta zeregin horretan aintzat hartuko dira kokaleku posibleek ingurumenean izan dezaketen eragina eta proposatutako etxebizitzaren tipologia. Horretarako, hautabide bakoitzak nekazaritzako baliabide eta ustiapenetan nola eragingo duen balioztatuko da, eta eraikinak zein urbanizazio-elementuak paisaian nola integratuko diren.

Hautabideen azterketak, nolana ere, zein metodologia erabili den azaldu beharko du; eta, ingurumen arloko faktoreak eta faktore tekniko, funtzional eta ekonomikokoak zein neurritan kontuan hartu diren garatu beharreko irizpide anitzeko azterketa egiterakoan. Baldin eta azkenean erabakitako hautabidea ez bada ingurumen baloraziorik hoberena lortutakoa, hautabide hori aukeratu izanaren arrazoiak justifikatu egin beharko dira.

Proposatutako hautabide guztien kokalekua eta ezaugarriak adierazten dituen dokumentazio kartografikoa erantsiko zaio planari.

Planaren ondorioak ingurumenaren ikuspegitik ikuskatzeko programa.

HAPOk ingurumenean izango dituen eraginak ikuskatzeko programa bat jaso behar du ingurumen azterketa estrategikoak. Eta programa horretan, identifikatutako eragin aipagarri bakoitzaren segimendua egin eta ezarritako neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsagarrien betetze maila eta eraginkortasuna ikusi ahal izango da, HAPOn definitutako ingurumen helburuen lortze maila bezalaxe.

Programak, ondorio horietarako, honako hauei buruzko informazioa jaso behar du aldika-aldika:

Proposatutako ingurumen helburuen betetze maila, Plana martxan jartzeak ingurumenean eragindako ondorio kaltegarrien garrantzia, Neurri prebentibo, zuzentzaile eta, halakorik izanez gero, konpentsagarrien aplikazioa eta eraginkortasuna, plana garatzeko egingo diren agirietan eta gauzatzeko proiektuetan neurri horiek sartzea ere barne

hartuta, Aurreikusi ez diren baina inguruneko elementuetan azaldu diren ingurumen ondorio kaltegarrien identifikazioa, Kasuan kasuko sektorean (ura, hondakinak, zarata, kutsatuak egon daitezkeen lurzorua, errepideak, jarduera sailkatuak, eta beste) eskumena duten erakunde edota administrazioek bidezko baimenetan ezarritako ingurumen baldintzen betetze maila, udal mailako baimenetan ezarritakoena bezalaxe.

Xede horri begira, ikuskapen programak honako datuak jaso beharko ditu:

Begiratu egin beharko diren ingurumen sistema, alderdi edo aldagaien identifikazioa, Burutu beharreko jarraipen eta kontrol jarduerak, bakoitzaren metodologia (datuak hartzeko estrategiak, aldizkakotasuna,...) eta kronograma adierazita, Jarraipen horretan erabiliko diren adierazleak, bakoitzaren unitateak eta gehieneko edo erreferentziako mailak adierazita. Adierazle horiek, agiri honen 9. apartatuan jasotakoak izan daitezke, edota egokitzen jotzen diren beste hainbat, Ingurumen jarraipena egiteaz arduratuko diren pertsonak edota erakundeak, Egin beharreko txostenen edukia eta aldizkakotasuna, Aurreikusi den aurrekontua.

Laburpen ez-teknikoa

Ingurumen azterketa estrategikoan emandako informazioaren laburpen ezteknikoa idatzi beharko da; eta laburpen horretan, informazio zehatza emango da, jendeak erraz ulertzeko moduan

Laburpen horretan, honakoak jasoko dira gutxienez: HAPO egitearekin lortu nahi diren helburu orokorrak; aztertu diren hautabideak; horietako bakoitzak ingurumenean eragingo dituen ondorioen laburpena; eta azkenean erabakitako irtenbidea edo irtenbideak aukeratzeko arrazoiak.

Laburpen horren osagarri gisa, diseinatutako neurri zuzentzaileak deskribatuko dira, eta herritarren zein administrazioen parte-hartze prozesuko ondorioak adierazi.

Era berean, alderdi aipagarrien dokumentazio grafikoa erantsiko zaio.

Hautabideen eta neurri prebentibo, zuzentzaile eta konpentsagarrien bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena.

Hautabideen azterketari analisi ekonomiko bat erantsiko zaio. Horretan kontuan hartuko dira kostu-irabazia analisia eta azterketa ekonomiko-finantzarioa, eta, ahal den neurrian, ingurumen nahiz gizarte alorreko kanpo kostuak ere sartu egingo dira.

Atal horretan, halaber, HAPO aplikatzeak eragin ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko edo arintzeko neurrien kostuaren zenbatespen edota aurrekontu banakatua jasoko da, plan horretatik datozen ingurumen kostuak barneratu egingo direla bermatzearen. Era berean, neurri horien finantzazio iturriak adieraziko dira, Alkizako udal aurrekontuen kontura ordainduko direnak eta, halakorik izanez gero, hirigintza proiektuen edo jarduketan sustatzaileek ordaindu beharrekoak bereizita.

## **2.6.2. EDUKIA ETA IRISMENAREN TXERTATZEA**

Ingurumen-Azterketa Estrategikoak aurreko atalean jaso diren eskakizun guztiak betetzen ditu.

## **2.7. INGURUMEN EBALUAZIOA ETA IKUSKATZE PROGRAMA EGITEKO AINTZAT HARTU BEHARREKO ADIERAZLE KUANTITATIBO EDOTA KUALITATIBOAK PROPOSATZEA.**

### **2.7.1. ADIERAZLEAK**

Hautabideen ingurumen ebaluazioa eta ikuskatze programa egiteko aukeratzen diren adierazleak, aldaera batzuen konbinaketa izango dira; alde batetik, HAPOn ezarritako ingurumen helburuak betetzen direla egiaztatzea ahalbidetu behar dute; eta bestetik, plan hori garatzen den bitartean ingurumen ondorioei buruz egindako aurreikuspenak betetzen direla. Horrela, neurri zuzentzaile gehigarriak ezarri ahal izango dira, baldin eta ingurumen baldintzak betetzen ez badira, edota helburu horiekiko gorabeherak gertatzen badira.

Ingurumen adierazleak:

Ingurumen helburuekin eta irizpideekin lotuak egon behar dute, HAPO formulatzen eta aplikatzen esku hartzen duten eragileei erantzukizunak finkatzea ahalbidetuko dien kudeaketa-tresna moduan funtziona dezaten benetan.

Neurgarriak eta denbora-tarteetan aztertzeko modukoak izan behar dute. Denboraren joanean aldatzeko modukoak izan behar dute, joera kaltegarriak prebenitzeko edo zuzentzeko xedez aztertzeko modukoak.

Adierazle kopuru txikia jarri behar da, inplikaturako eragile guztiek erraz ulertzeko modukoak izan daitezzen. Hori horrela, sinpleak eta interpretatzen errazak izan behar dute.

Eskuragarri egon behar dute, adierazle horiek lortzeko informazio-iturri askotara jo beharrik gabe.

Alkizako udalerrriaren ezaugarriak kontuan hartuta eta hasierako agirian jasotako planteamenduak ikusita, adierazle erabilgarri batzuk honako helburu hauetara bideratutakoak izan daitezke: lurraren kontsumoa balioztatzea (artifizializatutako lur azalera), lurzorua eta nekazaritza ustiatzeko nozituko dituzten ondorioak (nekazaritza ustiatzeko kopurua, balio estrategiko handiko lurren azalera) eta naturbalioen zaintza eta babesa (habitat interesgarrien azalera, baso autoktonoen azalera, babespeko eremuen azalera, eta abar).

### **2.7.2. ADIERAZLEEN TXERTATZEA**

HAPO honen Ingurumen-Azterketa Estrategikoaren 8. Capituluaren Alkizarako Ingurumena Zaintzeko Programa definitzen da. 8.5 atalean adierazleak zein diren eta ze ezaugarriak dituzten azaltzen da.

**INGURUMEN ARLOAK H.A.P.O.-N TXERTATZEAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA**

**3. HASIERAKO ONESPENAREAKO MOLDAKETARI EGINDAKO SEKTOREKO TXOSTENAK**

**3.1. INSTITUZIOEN SEKTOREKO TXOSTENAK**

HAPO-ri Udalak hasierako onespena eman ondoren, eskumen sektorialak dituzten administrazio publikoei helarazi zitzaizen dokumentua, dagokien txostena egin zezaten. Horien artean, ingurumenaren gaineko eskuduntzak dituzten hauei:

1. Ur Agentziari, 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Uren Legearen testu bategina onartzen duena.
2. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila. Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza (martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 26.5 artikulua).
3. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila. Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza (martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 26.5 artikulua).
4. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari, uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Uren Legearen testu bateginaren 25.4 artikuluan xedatutakoa betez.

**3.2. TXOSTENEN ESKAKIZUNAK**

Jasotako txostenek egiten dituzten eskakizunak honako hauek dira:

- 1A. Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak egindako txostenak oniritzia ematen dio HAPO-ri, baina kontutan eduki beharreko puntu hauek aipatzen ditu:
  - 1A.1 Herriari ura hornitzen dion entitateak ziurtagiria egin behar du hornitzea egiteko ur nahikoa dagoela adierazten.
  - 1A.2 HAPO-ren ordenazio berrien saneamendu sarea, udaleko hondakin-uren araztegia amaitzen den saneamendu-sistema publikora bideratu beharko da. Barrutien fitxetan adierazi beharko da.
  - 1A.3 Akuiferoak kutxa ditzaketan euri urak, hondakin urak bezala hartuko dira eta horien isuriak administrazio hidraulikoak baimendu beharko ditu.
  - 1A.4 Urbanizazio berrietan drainatze jasangarriko sistemak erabili beharko dira. Zoladura iragazgaitzak ekidingo dira.
  - 1A.5 Azaleko uren zortasun zerrenda garbi eta oztoporik gabe mantendu behar da.
  - 1A.6 Ibilguak zaintzeko eremuan eta jabari publiko hidraulikoan edozein obra egiteko, arroko erakundearen baimena beharko da.
- 1B. URA-k egindako txostenetik atera dugun baldintza Hau da: 6 sektoreko hirigintzako fitxan, urbanizazio proiektuak drainaje jasangarriko sistemak eta zoladura iragazkorak erabili behar dituela adierazi behar da.
2. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak adierazten duenez, Aurkeztu behar den HAPO-ren behin-behineko dokumentuarekin batera Ingurumen-Azterketa Estrategiko egokitua aurkeztu behar da ere, ingurumen organoak Ingurumen-Adierazpen Estrategikoa egin dezan.
3. Lurralde Oreka Berdeko Departamenduak honako baldintza hauek jarri ditu:

- 3.1 HAPO-n definitu den 6 sektoreak eragin negatiboa dauka nekazaritza ustialekuen gain, baina Ingurumen-Azterketa Estrategikoko Nekazaritza Sektorearen Gaineko Eragina eranskinak jartzen dituen neurri zuzentzaileak egokiak direla dio.
- 3.2 Eraikuntzako eta Urbanizazioko Ordenantzak, H Dokumentuan, aldaketa batzuk sartzea eskatzen du. 36, 39, 40, 42, eta 49 artikuluetan.
- 3.3 H Dokumentuko 49 artikuluari buruz ari dela, nekazalturismoak, landetxeak eta hotelak arautzen ez direla esaten du.

### **3.3. TXOSTENEN ESKAKIZUNEN BETETZEA**

- 1A.1 Herria uraz hornitzen duen entitatea Udala da. Ez du ziurtagiria egiteko eragozpenik.
- 1A.2 HAPO-ren ordenazioan aurreikusten diren ordenazio berrien saneamendua udal sarera bideratuko da, horrela dago jasota definitutako barruti bakoitzeko araudi partikularrean (G Dokumentuko idazkiko fitxa bakoitzeko 4.D atalean).
- 1A.3 Oharpena kontutan hartzen da.
- 1A.4 Urbanizazio berrietan drainatze jasangarriko sistemak erabili beharko dira.Hala dago xedatuta H Dokumentuko 59.3 artikuluan.
- 1A.5 Horrela jaso da F Doumentuko 12. Artikuluko D2 puntuan.
- 1A.6 Horrela jaso da F Doumentuko 12. Artikuluko D2 puntuan.
- 1B Lehen esan dugun eran, urbanizazio berrietan drainatze jasangarriko sistemak erabili beharko dira.Hala dago xedatuta H Dokumentuko 59.3 artikuluan.
- 2 Ingurumen-Azterketa estrategikoa HAPO honen K Dokumentua da.
  - 3.1 Txostenak berak esaten duenez, Ingurumen-Azterketa Estrategikoko Nekazaritza Sektorearen Gaineko Eragina eranskinak ezartzen ditu 6. Sektoreak ingurumenaren gain eragiten dituen kalte neurritsuak zuzentzeko erabili beharreko neurriak.
  - 3.2 Eraikuntzako eta Urbanizazioko Ordenantzak, H Dokumentuko 36, 39, 40, 42, eta 49 artikuluetan, eskatutako aldaketak egin dira.
  - 3.3 Nekazalturismoak, landetxeak eta hotelak Ostatu Zerbitzuak erabileraren baitan hartzen dira F dkumentuko 8. Artikuluan. Ostatu zerbitzuak landa lurrean kokatzea arautzen duen artikulua H Dokumentuko 46 artikulua da. Horren 1. puntuan erabilera aipatzen da, beste erabilera batzuekin batera, eta gainerako puntutan horien kokatzea arautzen da.

Alkizan, 2025eko irailan

Talde Egilea

Migel Anjel Irazabalbeitia, Pedro Izaskun, Amagoia Azurmendi, Cristina Burgos, Borja Izaskun, arkitektoak

Teodoro Cacho, abokatua



**ALKIZAKO UDALA**

**DILIGENTZIA:** Egiaztatzeko, Alkizako hiri antolamenduko Plan orokorrari, 2024ko irailaren 3an egindako udalbatzarrak hasierako onespena eman ziola eta 2025eko azaroaren 25ean eginiko udalbatzarrak behin behineko onspena eman ziola.

Alkizan 2026 ko urtarrilaren 20an.

**IDAZKARI KONTUHARTZAILE AKZIDENTALA**

Sin. Maite Iraola Agirresarobe